



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALAREN ETA BERTAN AZPEITIKO MERKATARI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA: "AZPEITIAN EROSTEKO BONOAK" PROGRAMA.

-Dirulaguntza zuzena bideratzeko hitzarmena-

Azpeitian, 2020ko azaroaren 18an

BILDURIK

Alde batetik, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, NAN 72.471.832-M duena, Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburua, Udalbatza Osoak 2019ko ekainaren 13-an hartutako erabakiaren arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

Bestetik, **KARMELE ZABALETA MANCISIDOR**, NAN 72451826D duena, Bertan Azpeitiko merkataritza elkartearen presidentea (IFZ: G-20999298).

BERTARATU DIRA

Lehena, Azpeitiko Udalaren ordezkari-lanetan, Udalbatzak 2019ko ekainaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.

Eta bigarrena, Bertan Azpeitiko merkataritza elkartearen ordezkari-lanetan, bere organu gorenak 2016ko apirilaren 27an izandako bilkuran hartutako erabakiaren indarrez egintza honetarako baimendua.

Bi aldeek aitortzen diote elkarri agiri hau izenpetzeko eta jarduteko behar den gaitasun juridikoa eta honakoak azaltzen dituzte:

AURREKARIAK

Osasunaren Mundu Erakundeak martxoaren 11n deklaratu zuen COVID-19ak eragindako nazioarteko pandemia. Gertakarien bilakaera hain azka-rra izan zenez, egoera berri horri aurre egiteko berehalako neurri eraginkorrak hartu behar izan ziren. Martxoaren 14an, 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen Espainiako estatu osoan, osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Erabaki horrek biztanleei zuzendutako zenbait euste-neurri biltzen zituen, eta horien artean zeuden merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa murriztea (merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza establezimendu askok ateak itxi behar izan zituzten, eta funtsezkoetan egonaldia behar-beharrezko denborara mugatu zen). Martxoaren 14an deklaratu zen alarma egoera amaitu, eta normaltasun berrirako Euskal Herri mailan trantsiziorako onartu ziren planak bertan behera geratu dira urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, berriro alarma egoera deklaratu denean. Egoera honetan Lehendakariak eman duen urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak ere berehalako neurri eraginkorrak ezarri ditu (malguagoak merkataritza eta zerbitzu sektoretan, eta oso



gogorrak ostalaritzan).

BERTAN Azpeitiko Merkataritza Elkartek COVID-19aren aurrean, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza sektoreak suspertzeko “AZPEITIAN EROSTEKO BONUAK” bonu kanpaina berria aurkeztu dio Udalarik 2020ko urriaren 29an -2020OROK1449-. Kanpaina honen helburua da herriko norbere konturako langileei eta txikizkako merkataritza zerbitzu eta ostalaritza sektoreetako mikroenpresei eta enpresa txikiei indartzen laguntzea, sektore hauetan eskaria bultzatuz. Modu berean, sektore hauetan oinarri diren herritarrei eta enpresa-sareari lagundu nahi zaie. Nola ez, Covid-19aren pandemia dela eta alarma egoera deklaratzaren ondorioz enpresa jakin batzuen jarduerari aldi baterako etetearen ondorio ekonomikoak arintzea lortuko da kanpaina honekin (kanpaina horren nondik norakoak eta xehetasunak eskaerarekin batera aurkeztu den memoria batean txertatu dira).

Euskadiko Toki erakundeei buruzkoa den 2/2016 Legeak Azpeitiko Udalarik barne merkataritza antolatzeke eta kudeatzeko ahalmena ematen dio. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, biltegi eta kalekaleko merkataritza antolatzeke eta kudeatzeko. Hor sartzen da, era berean, **tokiko kontsumoa sustatzea**, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaaren arazoizkoeko erabilerari erantzunez.

Ekonomia Batzordeak 2020ko azaroaren 2an egindako bileran, merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sektoreak dinamizatzea helburu duen kanpaina landu eta gero, aldeko irizpena eman dio kanpaina behar bezala gauzatzeko 30.000 €ko laguntza emateko; agerikoa da bonu-kanpainak herrian duen interes publiko, ekonomiko eta orokorra eta horien bitartez Udalak tokiko merkataritza indartzeko xede publikoa lortzen du.

BERTAN Azpeitiko Merkataritza Elkartek, toki-merkataritza txikia sustatu eta indartzea du helburu. Aldi berean, Azpeitiko txikizkako merkataritza sustatu eta herri kontsumoa bultzatzea nahi du.

Bi erakundeei badakite zein garrantzitsua den Azpeitiko merkataritzaren garapena eta lehiakortasuna babestea, bizitzen ari garen garai hauetan herriko merkataritza sustatzeko helburua duten proiektuak bultzatzea, honen ondorio zuzena Azpeitiko eta bertako biztanleen garapen ekonomiko, estrategiko eta solidarioa izango delako.

Horiek horrela, parte-hartzaileek, duten ordezkaritzaaren arabera, bere burua lotzeko gaitasuna dute eta hori aitortzen diote elkarri; hortaz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua kontuan izanik, hurrengo lankidetzak-hitzarmena gauzatzeko, hauek erabaki dituzte:

1. HELBURUA.

Hitzarmen honen xedea da Covid-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza sektoreari ekonomia indarberritzeko programaren, “AZPEITIAN EROSTEKO BONOAK” kanpainaren, dirulaguntza zuzena arautzea. Programaren helburua da Covid-19aren ostean herriko saltokietan kontsumoak izango duen beherakadari aurre egitea, herriko merkataritza dinamizatzea eta Azpeitian



Azpeitiko Udala

erosketak egitera bultzatzea bertako merkataritza balioan jarritz, merkataritza ehunari bizirik eustea ahalik eta establezimendu gehien zabalik mantenduz eta azkenik, Azpeitiko kontsumitzaileei erosketak burutzeko pizgarriak eskaintzea. Horrela, Azpeitiko merkataritza sektoreko jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz.

Helburu hori gauzatzeko hitzarmen honen bidez Azpeitiko Udalak, BERTAN Azpeitiko Merkataritza Elkarteari 30.000 €ko laguntza zuzena eman dio, 2020. ekitaldian merkataritza txikia sustatu, indartu eta kontsumitzaileek erosketak burutzeko pizgarria den egitasmoa bideratzeko.

Egitasmoaren xehetasunak, hau da, AZPEITIAN EROSTEKO BONOAK kanpainaren nondik norakoa, hitzarmenaren **Eranskin** bezala jaso da, eta bertan zehaztu dira aurtengo ekitaldian emango diren jarduketak.

Diruz lagundutako jarduera egiteko epea 2020ko urriaren 25etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

2.- AZPEITIKO UDALAREN BETEBEHARRA

1.- Azpeitiko udalak hitzarmen honetan jaso den 30.000 €ko laguntza gauzatuko du 2020ko Udalaren aurrekontuan jaso den 1100.480.430.00.01 2020 Transferentzia arruntak, industria, merkataritza eta turismoa kreditu-partidatik ("AZPEITIAN EROSTEKO BONOAK" bono kanpaina egitasmoa bideratzeko).

3.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

BERTAN Azpeitiko Merkataritza Elkartek bere gain hartzen du:

1.- Azpeitiko Udalak ekarritako funtsak hitzarmenaren bidez onartu den egitasmoa bideratzea.

2.- Azpeitiko merkataritza sektoreari aholkularitza ematen jarraitzea, asoziazioen eta merkatarien arteko kohesioan parte hartuz.

3.- COVID-19 aren eraginez herriko merkataritzak izan ditzakeen ondorio eta aldaketen jarraipena egin eta udalari jakinaraztea.

4.- ORDAINKETAREN BALDINTZAK:

Onuraduna izateko baldintzak: Laguntzaren onuraduna izango den BERTAN Azpeitiko Merkataritza Elkartek indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak bete ditu.

Ordainketa aurreratua: Kopuru osoaren ordainketa aurreratua egingo da, dirulaguntzaren helburu diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa delako.



Laguntzaren onuradunak ez du bermerik eratu beharrik, lukrorik gabeko erakunde bat delako eta bere helburua merkataritza alorrean herriaren garapena delako helburu.

Laguntzaren bateragarritasuna: Diruzko ekarpena bateragarria da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administratziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik badatoz. Edozein kasutan, laguntza guztiak ezingo dute jardueraren kostua gainditu.

BERTAN Azpeitiko Merkatarik Elkartek diru-laguntzen ikuskapenari, jarraipenari eta kontrolari buruzko araudia bete behar du, eta Udalaren diru-laguntzak kudeatzen dituzten organoek eskatutako informazio guztia eman.

BERTAN Azpeitiko Merkatarik Elkarteari diru-laguntza itzultzeko eskatuko zaio - diru-laguntza ordaintzen den unetik dagokion berandutze-interesarekin-, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulutik 43.era bitartean aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan.

5.- DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO ARAUBIDEA.

Diru-laguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatu beharko du BERTAN Azpeitiko Merkatarik Elkartek, Udalaren Ekonomia Sailaren aurrean.

Diruz lagundutako jarduera egiteko emandako epea amaitu eta gehienez ere **HIRU hilabeteko epean** aurkeztu beharko da justifikazioa. Justifikatzeko epea amaituta justifikaziorik aurkezten ez bada edo nahikoa ez bada, justifikatzeko betebeharra ez dela bete ulertuko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Justifikazio-kontu sinplifikatuak diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko **jarduketa-memoria** bat izango du, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, bai eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 75.2 artikuluko b) eta c) eta, hala badagokio, d) letretan xedatutako dokumentuak ere.

Diru-laguntza ematen duen organoak egoki irizitako egiaztagiriak eskatuko dizkio onuradunari, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko.

6.- PARTEHARTZE EGITASMOAREN ETA JARDUKETEN JARRAIPENA ETA KONTROLA -UDALAREN EKONOMIA ALORREKO BATZORDEA.-

Ekarpenak eskatzen dituen justifikazio baldintzak betetzearen kalterik gabe, hitzarmenaren helburu den ekimenen jarraipena eta kontrola Ekonomia batzordearen gain izango da.

7. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Diru-laguntza hau, hitzarmen honetan xedatutakoaz gain, azaroaren 17ko 38/2003



Azpeitiko Udala

Legeari eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lege horren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Hitzarmen hau Covid-19aren eraginaren ondorioz, Azpeitiko Udalaren Sustapen Plan Integraleko Planaren baitan dago. Bere izaera diru-laguntza zuzena da eta bere helburua txikizkako merkataritza dinamizatzea eta sustatzea da.

Lankidetzeta-hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta juridikoki Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 6.2 artikuluan dago sartua, eta beraz, haren aplikazio zuzenetik kanpo dago.

Ondorioz, Lankidetzeta-hitzarmen honen indarraldian sor daitezkeen auziak Administrazioari auzi-gaietarako jurisdikzioak erabakiko ditu.

8.- BATERAGARRITASUNA

Hitzarmen honen diru-laguntza bateragarria izango da xede bera duen beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen administrazioa edo entea (publikoa edo pribatua), izan Estatukoa, Europar Batasunekoa, edo nazioartekoa, baina ezin izango da gehiegizko finantzaketarik eskuratu.

9.- HITZARMENA SUNTSITZEA

Hitzarmen hau indargabetuko da egoera hauetakoren bat gertatuz gero:

- Sinatu duten alderdiak biak ados daudenean; hilabete aurretik jakinarazi beharko da.
- Aldeetako edozeinek bere konpromisoak ez betetzea.

10.- PUBLIZITATEA

Diru-laguntza hau Udalaren web orrian argitaratuko da gutxienez,

Eta aurretik adierazitako guztiarekin duten adostasunaren seinale gisa, agiri hau hiru aldeek izenpetzen dute, idazpuruan ageri diren tokian eta egunean.

11.- DATU PERTSONALEN BABESA

Alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoari buruzko (3/2018) Lege Organikoari eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak betetzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten erabiltzaileen datuei dagokienez.



Azpeitiko Udala

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean:

Nagore Alkorta Elorza Azpeitiko Udala  Azpeitiko Udala ALKATETZA 	Karmele Zabaleta Mancisidor Bertan Merkataria Elkarte 
---	---